

DEMOKRAZIAK ERREBOLUZIOA HILOBIRATZEN DUANEAN



Gaulixtek elezioak maiatzeko nahesmenduen ondorenean irabazi zituztenean **Pueblo** Madrileko egunkariak bere lehen horrian titular hau ekarri zuen: «Las urnas entierran la revolución». Emilio Romerok dixit. Euskeraren batasuna dela ta aldaketarik nahi ez dutenek demokrazia aitatu izan dute gazte saltsero ta h-zale hoiien kontra. Gehiago oraindik, Arantzazuko Biltzarraren aurretik heldu zen gutun bat h-ren etsai bate-na letra hau klasista dela ta langileek hori nola erabili ikasteko betarik ez omen dutenez, langileen kontrako dela ziona.

Nola ez oroitu hau ezagutzerakoan Gomulka ta Novotny-k Polonian eta Txekoslovakian egin zutenaz? Nazio hoietako populuek demokrazia gehiago eskatzen hasi ziranean buruzagi hauek langileak pentsalarien kontra jartzen saiatu ziran, demagogia hutseko propagandaren bitartez. Poloniakoak neurri handi batean lotu zuen, Txekoslovakia-koak ez eta Dubcek-eri utzi behar izandu zion agintea.

Dagoanari eutsi nahi dionak, benetako aldaketarik nahi ez duenak bezaz, demokraziari hotsegingo dio, bai baidaki sistema aldatzen ez den bitartean dagoanak bere burua defendituko duela. Izandakoaren, eskarmentuaren, etorkizunaren beldurraren izenean mintzo dira.

Inertziarekin kontaktzen dute. Gauzak segi dezatela orain arte bezala. Beldurra astintzen dute aldaketak dakarren arriskuari eragozpena jartzeko. Ez dute inolako arriskurik nahi. Lehenago hil.

Alemaniano nazi berriek bere alderdia demokrata ta nazionala izenekin bataiatu dute. Ez da batere harriztekoa.

Izan ere jendea ondo «edukaturia» eduki ezker, jendeari posibilidadade berrien demostrazioa egin dezaioketenei bidea galerazi ezker, populuak sistemari balezkoa emango dio. Gaulixtak berak agintera militarren altxatze baten ondorenean heldu ziran agintera.

Horregatik, kontserbadoreak, eskuindarrak, reaktionarioak dira delako demokrazia hoiien eustailerik handienak. Komeni zaienean noski, ez beti. Dagonari eusteko hotsegiten diote demokraziari. Hemen h-ren eta euskera baturen kontrakoek bezala.

Delako demokrazia honen eta erreboluzioaren artean bigarrena hautatu behar. Dagoanean ittotzen ari diranek ez dute beste aukerarik.

R. A.